

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko behin-behineko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2016ko urtarrilaren 25ean **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

5.- GEURIEN BE BAI EGITASMOA KUDEATZEKO ZERBITZUA ESLEITZEA.

Planteatutako gaia

Geurien be bai egitasmoa kudeatzeko zerbitzuaren esleipena.

Aurrekariak

Lehenengoa: Kontratu honen xedea *Geurien be bai* egitasmoa kudeatzeko zerbitzua ematea da, baldintza administratibo eta teknikoetan ezartzen den eran.

Bigarrena: Zerbitzu hau kontratatzeko publikitate bako prozedura negoziatua bideratu da, Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko abenduaren 28an onetsitakoaren arabera. Guztira hiru enpresa gonbidatu dira:

- Elhuyar-Zubize, S.L.U.
- Emun, Koop. E.
- AEK /AHIZE hizkuntza aholkularitza

Horietatik, Elhuyar-Zubize, S.L.U.-k eskaintza aurkeztu du, beste biek, ordea, ez.

Argudioak

Lehenengoa: Elhuyar-Zubize, S.L.U.-k aurkeztutako proposamena aztertuta, proposamen teknikoari dagokionez, egitasmoaren helburuekin bat dator, lan metodologia egokia planteatzen du eta ebaluazioari dagokionez, adierazle sistema orokorraz gain, ekintza batzuetako erabilera-datuak jasotzea proposatu dute.

Bigarrena: Hobekuntzen atalean, baldintza-agirietan jasotako hobekuntzak proposatu dituzte, lantaldearen osaketari, koordinazio-bilerei eta herritarrekiko hartu-emanei buruz eta horrez gain, beste hobekuntza batzuk proposatu dituzte arlo hauei dagokienez: hizkuntza-jarrerak, genero-ikuspegia eta teknologia berrien erabilera, eta denak bat datoz egitasmoaren helburuekin.

Hirugarrena: Kaudimen teknikoari dagokionez, aski frogatu dute.

Laugarrena: Proposamen ekonomikoa, berriz, baldintza-agirietan zehaztutakoa hobetzen du. Hauxe da: 37.284,70 € + 7.829,79 € (BEZa). Guztira: 45.114,49 €.

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

BAKARRA: *Geurien be bai* egitasmoa 2016ko urtarriletik aurrera eta hamabi hilabetez kudeatzeko zerbitzua Elhuyar-Zubize, S.L.U.-ri esleitzea prezio honetan: 37.284,70 € + 7.829,79 € (BEZa). Guztira: 45.114,49 €, Euskera Sailaren 2016rako aurrekontu luzatuaren pentzura.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkatearen aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2016ko urtarrilaren 29an.

ONETSIA
ALKATEA